

Mallea idazle entzutetsua ta Eibar'ko malleatarrak

MALLEATARRAK EIBAR'EN

Eibar'en, gerra aurretiko gauzekin gogoratzen garan guztiok ezautu genduan Malleatarren jaurregia. Mallea'k etxe ori izan eben euren enbarri. Elix-atain euan etxe au, oin Zuloaga'n omenezko estatua dagon inguruan. Orduango Barren-kaletzat ezautzen zan kale-buruan, kantoia egiten ebala.

Jauregi orrek, bere aurrekaldetik, ate neusia izan zanaren bi abe sendo ate-buruaren eutsigarri zituan, ta bere gañean, Malleatarren arlanduzko eskudo bat. Gu' ezautu genduanian, ate orretan, estanku bat euan, ta etxe orren saloirik aundifian «Conservadorien» zentrua, ta gañerakuan bizitzaren bat edo beste.

Jauregi onetan, Malleatarren endoren, Godoi apellidokoak bizi izan ziran eta «Gorriñekua» izenagaz ezautu eben gure aurretiko zarrak. Aldatze au, biar bada, Mallea'ren bat Godoi'gaz ezkontzetik edo etorriko zan, ze, orreka aldatu izan dira Euskalerriko basarriak beren jatorrizko abizen edo apelliduetatik.

Azkenengo gerratian erre zan Mallea jaurregia. Bererik, bueltako lau ormak bakarrik gelditu ziran ta ba-dirudi guztien jatorria Mallabia'tik etorrela, haña aintzifiatik Eibar'era jo ebala. Ta Eibar'tik azaldu ziran kondairan edo istorian lelengo aldiz entzuzera etorri ziran Mallea apellidukoak.

Gregorio Mujika'k, bere *Monografía Histórica de la Villa de Eibar* en, au diño: «Dos casas ostentaban en Eibar el nombre de Mallea; a una llamaban palacio y tenía 3.000 ducados de renta: la otra tenía 2.000. Ambas datan en Eibar de muy antiguo y tienen un origen común: traen su principio dependencia de la casa de Mallea la mayor, sita en la anteiglesia de Mallabia, en Vizcaya».

García Garrafa'k bere *El solar vasco-navarro'n*, Eibar ipintzen dau Mallea'n jatorri bezela, esanaz: «De este apellido hubo casa solar en Eibar (Guipúzcoa) y de ella fué el Capitán Juan de Mallea y Zugasti, natural de Eibar, del Consejo de Guerra de Flandes y Caballeo de la Orden de Santiago, en la que ingresó el 11 de Octubre de 1628, que contrajo matrimonio con doña María de Eguiguren e Isasi, de la misma naturaleza, naciendo de esta Juan de Mallea Eguiguren, natural de Eibar y Caballero de la Orden de Santiago, en 1637».

1619'garren urtian, Villafranca n probintziako batzarretan, Francisco de Mallea izeneko eibartar bat agertzen da, eta 1638'an beste eibartar bat, Gabriel de Mallea izeneko, Gipuzkoa'ko tropen kapitán azaltzen da, Diego de Isasi eibartar koronelán agindupian. Geruago, Gabriel de Mallea au, 1643'an Eibar'ko alkate bezela agertzen da.

Mugika'n liburuari begiratu bat emon ezkeru, ikusi geinke 1617'tik 1754'ra sei Malleatar agiri dirala Eibar'ko alkate.

Familia onetan filantropo bat ere ezautu zan, Juana de Mallea izeneko bat, inñundik doterik ez eben eibartar gaztien artian urtero lau eskongairi berak emoten zetsen dirua ezkundu al izateko. Lau kapilla barri be sortu zituan, urteko 130 dukaduko errentakin, ta abar.

Azpeiti'ko María de Loyola, San Ignacio'n familiakua izan biar dau, ze, Joxe Arteñe'k esan destanez Azpeiti'ko Loyola guztiak ziran jatorri batekuak, Eibar'era ezkundu zan Andrés Martínez de Mallea'gaz, ta euron semia izan zan Fray Martín Ignacio de Mallea y Loyola, Paraguay'ko Asunció del Río de la Plata'ko obispo izan zana.

Eibar'en, Malleatarretatik azkenengo al-

kate egon zana, 1754'garren urtian, Joaquín de Mallea y Aldazábal, Oficial Mayor en la Secretaría del Consejo Supremo de la Santa Inquisición general de España e Indias izan zan.

Onak agiri batzuek besterik ez tira. Ba, garbi asko ikusten da Mallea apellidua Eibar'ko istoriari lotuta doiala.

EDUARDO MALLEA, GAURKO IDAZLERIK BIKASNETAKUA

Jatorri orretako apellidua Ameriketa aldiari be zabalduak billatzen dira. Batez be Argentina'n.

Argentina'ko geienak jatorri ber-bera dabe. Juan Eugenio de Mallea izan zan emendik juan zana. Oindiok eztagiku Eibar'tik ala Euskalerriko beste lekuren batetik; ze, Mallabi'tik Eibar'era zabaldu ziran lelengo ta gero, emendik, Ermu'ra, Eiorri'ra ta Oyartzun'era. Azkenengo erri onetan be beste Mallea izeneko etxe bat azaltzen da, bere eskudo ta guzi. Ta eskudo orrek daroian lema «Malleagas Foruagaites» da, Mallabi ta Eibar'kuak bezelaxe; bere Bizkai aldeko euskeraren kutsuagaz, ze, gaz sufijo ori Oyartzun aldiari eta ezautzen.

Sarmiento argentinarra, bere *Recuerdos de provincia'n* dakarrenez, emendik juan dako Juan Eugenio de Mallea ori izan ei zan Argentina'ko San Juan fundatu ebenen artian. 1553'tik an agertzen da, ta 1570'ean juaz eta Real Hacienda'ren kontadore ei zan. Mallea orren bizitza San Juan'go lelengo amar urtietako istoriari ziero lotuta dagola diño. Juan Eugenio eibartarra bazan, ez ete dauka zer ikusirik San Juan izen orrek bere erriko San Juan jaiekien? Jakingarria litzeke.

Juan Eugenio de Mallea'n ondorengua, San Juan'dik Mendoza, Bahía Blanca ta Buenos Aires'era zabaldu ziran, Argentina'ri gizon aundiak emonaz. Ta orren artekuau dogu Eduardo Mallea.

Eduardo Mallea, Bahía Blanca'n jaia da 1903'an, ta gaurko idazlerik gorenetakuen artian dago. Bere *Todo verdor perecerá*, *La bahía del silencio*, *Las águilas*, *Los enemigos del mar*, ta abar, munduko nobelarik onenetarikuen artian sartzen dira, ta bere poesiaz beteriko ipuñiak ez dira atzerago gelditzen diranak. Bere obrak, munduko izkuntza guztietara zabaldu dira ta antologia askotan bere ipuñiak. Bere lanetan nortasun sendo bat agiri da. Orregaitik ez dauka beste inoren antzik, ta inorenik izatekotan, kritikauk diñueñez, François Mauriac'ena dabela. Orrekin naikua esaten dogu bere alde.

Stefan Zweig idazle aundiak ara zer esan eban Mallea'n *Todo verdor perecerá* irakorri ebanian: «Acaso no me encuentro bastante versado en la literatura sudamericana; pero, dentro de lo que conozco, puedo decir con toda franqueza que no se de ninguna obra reciente, dentro de tal literatura, que pueda compararse con la suya».

Liburuak asko dira gaurko egunian, haña gure gogua betetzen dabenak ez tira air asko, ta ikaragarriko pozfasuna izaten dogu norperan ideantzako aukeran datorren idazle bat arkitzen dogunian, tajuz norperan biotza beteko daben idazlia; au da mundua norperan atzerako kezkekin arkitu dans, problema berdinsuen aurrian agertu dans; ze, antzerkuan izate orrek alkar lotzen gaitza munduko bidietan. Ta, ain zuzen be, ori zan neri gertatua, Mallea'n liburuak irakortzerakuan.

Orraitiok, bere libururik onenak nobelak eta ipuñiak ez dirala esango neuke, en-



Escudo de los Malleas en la calle Hospital.

(Foto Ojanguren).

saiuak baño. Ta, ensaiuen artian *Historia de una pasión argentina* izango da, biar bada, bere libururik onena. Jakituriz ta pentsamentu sakonez beterik dagon liburu eder-eder bat da. Gabriela Mistral'en iritziak, betikotasunerutz pasauko dan liburua, ta eskola textotzat artzia mereziko dabela.

Historia de una pasión argentina, gaurko literaturak berakin daroian larri-miña agiri dau, etsipenaren mugetara ez eltzeke esu bat jarri nairik egiña dala emoten dau; baña oso gaitza da igartzen esi orrek bedorrek itxaropena ala etsipena geiago indartzen daben. Obra orrek ba-dau beste zentzun bat pe; Ortega y Gasset, Waldo Frank eta Keyserling'eko Kondia'k Argentina'ri ein dako kritiken erantzuna dala be esan leike. Onak ez eben ikusten amerikarren artean kultura zaletasun askorik, euron kritika orretan, eta orrek Argentina'gan ikusten zituen añako utsunak billatzen ditu Mallea'k Europa'n. Europa'n kulturian paraisua billau biar ebalakotzat etorri zan bera alde onetara. Mallea etorri zan denporan, naziño batzuetan ditadurak indartsu azaltzen ziran ta or eban Mallea'k bere Argentina goratu biarraren errazoia: demokrata izatean.

Europa'ren utsunak gogorki astintzen ditu bere Argentina'kin konparatzerakuan, esanaz: «también es de este pueblo el otro ánimo, el ánimo de libertad. Las tiranías son las formas sociales de la avaricia. Las tiranías son la especie de Harpagon, cuya política era buena porque sabía atesorar y tener poder, cuya moral era horrible por la subordinación de todo a eso mismo. Pero éste, éste es un pueblo de ánimo libre. No hay generosidad concebible sin libertad; todo lo que atenta contra la libertad es un acto de usura, de acaparamiento de humanidad en desmedro de la posibilidad fértil de cada ser. En pueblos de naturaleza fértil no crece tiranía. Or euan bere ustez Europa'ren pekatua, ta ez pekatu txikia.

Europa'ren animia billotsik billau eban, ta billotutako anima orretan utsuña asko be asko. Bai, izan be billa asi ezkeru bada munduan naikua erri pekatuan, gizonen lotsarirako. Gordintasun orrek bultzatu eban Mallea berriz bere erriaren maitale sutsu bat biurtzera, ta etsipenak bazterturik Argentina'n alde jo-ta-ke asi zan. Baña ez beste erriak baztertuz. Mundutik jasotzen dogun bezela, munduari emon biarra dauka: «el mundo a través de mí y de mi pueblo diño azkenerruz bere lan eder orretan. Eduardo Mallea'k, ez dakit bere apellidua'ren lema ezautuko daben, baña bere biotzian joitza daroiala esan leike: «Malleagas Foruagaites».

JUAN SAN MARTIN.